

Umeentzako COVID txertoa eta beste neurri batzuk



ISABEL CANALES ARRASATE ETA
VIRGINIA CANALES ARRASATE
MEDIKUAK

Pandemia honetako erabaki askok eztabaida garden, aske eta sakonen beharra daukate. COVID-19aren aurkako umeen txertaketari debatea zor diogu, Lehen Arretako Berrikuntza Mintegiaren (SIAP) eta Lehen Arretako Espainiako Sarearen (REAP) honi buruzko lanek argi utzi duten legez.

SARS-Cov2ak umeengan eragiten duen gaixotasuna, orokorrean, arina eta denboran mugatua da, askotan asintomatikoa. Europan 5 urtetik gorako umei ematen zaizkien COVID-19aren kontrako txertoak seguruak direla esan dute, momentuz txerto horiei larrialdi egoeran erabiltzeko baimena eman dieten agentzia erregulatzailak. Ez dakigu, baina, zein den txerto horien epe ertain eta luzerako segurtasuna. Denbora eta kalitatezko erregistroak behar ditugu eragin ditzaketan albo-ondorioak eza-gutzeko. Honen adibidea, populazio gaztean txerto hauen osteko miokarditis/perikarditis kasuen igoera. Kasu gehienak arinak eta ez oso ohikoak izan arren, etorkizunean ekar litzaketan balizko ondorioak kontuan hartzeko azpimarratu zuen Britainia Handiko Txertaketa eta Immunizazio Batzordeak (JCVI), iraileko adierazpenean.

Bestalde, ze oinarri zientifiko eta etikoko dauka “talde immunitatea lortzeko” umeak txertatzeak? Gaur egungo COVID-19aren aurkako txertoek, zoritxarrez, ez dute birusaren transmisioa behar bezala ekiditen, zientziak eta oraingo transmisio komunitario zabalak argi utzi duten bezala. Transmisio honetan umeek pandemia hasieratik izan duten rola helduena baino txikiagoa izan da. Ume askok gaixotasuna honezkero pasatuta dauka, herri askotako estimazioek dioten bezala. Umeen seroprebalentzia ikerketa bat behar dugu (Juan Simó medikuak dioen moduan). Eta immunitate zelularra ikertuko duena ere bai.

Umeen txertaketaren erabakia adineko taldean izango lukeen abantailan oinarritzea (horrela denik ematen ez badu ere) eztabaidagarria da oso. Eta umeen immunitate naturalak endemiarako jautsian lagun lezake

Britainia Handiko 4 eta 11 urte arteko umeen lagin batean, seronegatiboen (antigorputzen testetan negatibo) %60k immunitate zelular indartsua zeukan (JCVIren 32. akta).

Gaixotasuna eduki ostean antigorputzak une hartan negatiboak izan arren, bazeukaten gaixotasuna pasatu izanaren seinalea, birusari aurre egiteko immunitatea. Zertarako hauentzako txertoa?

Norvegiak ez die txertoa eskaintzen gaixotasuna pasatu duten 12-15 urte bitarteko umei.

Azaroaren 25ean, Medikamentuen Europako Agentziak (EMA) larrialdietarako baimena onartu zuen Comirnaty txertoa 5 eta 11 urte arteko umei ere emateko. Finlandiak eta Norvegiak, momentuz, 5-11 urte bitarteko haur osasuntsuei ez die txerto hori jarriko. Horretarako segurtasunari buruzko informazio gehiago behar dutela adierazi dute.

Umei COVID-19aren aurkako txertoa ematean, argi konpentsatu gabeko balizko arrisku bati atea zabaldu ahalko genioke. Etikoki, umeen txertaketaren erabakia adineko taldean izango lukeen abantailan oinarritzea (horrela denik ematen ez badu ere) eztabaidagarria da oso. Eta umeen immunitate naturalak endemiarako jautsian lagun lezake.

Pandemia honetan gehiegitan entzun dugu haurrak hiperkutsatzaileak direla. Hasieran honelako baieztapenek oinarri zientifikorik ez bazuten, gaur egun ebidentzia zientifiko guztien kontra doaz. Orintsu, gure inguruan, umeak izan dira intzidentzian lider; positibotasunean, aldiz, kontrakoa. Proporzionalki, umei gainontzeko adin tarteei baino test gehiago egin diegu? Umeen (0-19 urte) positibotasuna, orokorra baino askoz baxuagoa da. Ez lirateke umeak birusaren “gordailua”, ezta birusa nagusiki zabaltzen ari direnak ere (Simóren *Los niños lideran la incidencia pero no la positividad, ¿a nadie le inquieta esto?*).

Haurren berezko beharrak ez dira kontuan hartu pandemia honetan. Adin txikikoei, entzun barik, gauzak azaldu egin dizkiegu. Zer sentitzen zuten galdetu barik, helduon arauak helarazi eta inposatu dizkiegu. Eta murrizketa horiek guztiek eragin latza izan ei dute eta izaten ari dira haien osasun mentalean ez ezik, osasun fisiko, pobrezia tasa eta alor akademikoan ere. Besteak beste UNICEFen *COVID-19ak eragindako krisiaren eragina haur zaurgarrienengan* txostenak aztertu bezala.

Hemendik aurrera, umeen inguruan hartuko ditugun neurriak haien berezitasun eta beharretara egokituta egon beharko dira, zientzian oinarrituta. Ez genieke umei ekidin nahi diegun kaltea baino handiagoa eragin beharko. SARS-Cov2 birusa pasatu ostean garatzen duten immunitate naturalak izango du seguru aski helduaroan ere garrantzia, bestelako koronabirusek haurtzaroan eragindako infekzioak eduki eta gero birusarengandik defendatzeko sortutako immunitatearen parekoa. Izan ere, helduaroan birus berberak kutsatuz gero larritasunetik defendatzeko ezinbestekoa baita haurtzaroan garatutako immunitate natural hori. *Primum non nocere.* ●